a) Poseer la capacitación profesional adecuada para una eficaz ejecución de la política de prevención comunitaria de las drogodependencias en el ámbito del País Vasco.

b) El equipo técnico actuará siguiendo las directrices de los servicios sociales de la entidad solicitante, que asumirá el coste económico derivado de la contratación de dichos equipos técnicos.

c) Cuantos otros resulten de los Convenios a través de los cuales se instrumentarán las ayudas.

2.– Los equipos técnicos tendrán, además de lo dispuesto en el artículo 25.2 de este Decreto, las siguientes funciones:

a) Desarrollar las acciones necesarias para lograr un adecuado conocimiento del fenómeno de las drogodependencias en la comunidad.

b) Asesorar a las distintas áreas municipales y entidades colaboradoras en la planificación de las actividades en el campo de las drogodependencias y en la ejecución del Plan Local de Drogodependencias, con el fin de lograr una intervención integral y coordinada.

c) Información y asesoramiento a las personas, familias y colectivos sobre los recursos sociales disponibles en la comunidad y remisión, en su caso, a la asistencia social de base o a servicios especializados en los casos que así lo requieran.

d) Colaboración, en el desarrollo de sus funciones, con los servicios sanitarios y educativos.

e) Información y orientación específica a personas, familias y colectivos sociales sobre el fenómeno de las drogodependencias.

f) Colaboración con las Administraciones públicas y promoción de las iniciativas privadas sin ánimo de lucro y del voluntariado social, en las acciones que desarrollen en materia de drogodependencias. En particular, colaborarán en la ejecución de los programas de ámbito supramunicipal promovidos por el Gobierno Vasco.

g) Cuantas actuaciones se contemplen en el desarrollo de programas específicos de actuación en la prevención comunitaria de las drogodependencias.

3.– Drogen menpekotasunen komunitate-prebentzioko talde teknikoak honako kide hauek osatu behar dituzte:

a) 10.000tik 20.000ra biztanle dituzten toki erakundeetan: goi mailako edo erdi mailako teknikari bat, egun osorako.

b) 20.001etik 50.000ra biztanle dituzten toki erakundeetan: goi mailako edo erdi mailako teknikari bat, egun osorako; eta administrari laguntzaile bat, egun erdirako.

c) 50.000tik gora biztanle dituzten toki erakundeetan: goi mailako edo erdi mailako teknikari bi eta administrari laguntzaile bat, egun osorako denak.

*27. artikulua.–* Eskabideetan adierazi behar diren datuak

1.– Talde teknikoak sortzeko edo mantentzeko laguntzetarako eskabideetan honako datu hauek adierazi behar dira gutxienez:

a) Talde teknikoen deskribapena egin behar da, eta aurreikusitako helburuak, programak eta zerbitzua eskaintzeko modua adierazi behar da orobat.

b) Talde teknikoak zenbat lagunek osatuko duten esan behar da, haien ikasketa-tituluka bereizturik eta urte horretarako kostu ekonomiko osoa zehaztuz. Horrez gain, taldeko kide bakoitzarentzat prestatutako gastuen fitxa bete behar da.

c) Zerbitzuak erabiliko dituen baliabide materialen azalpena egin behar da.

2.– Laguntza-mota honetara jotzen duten erakundeek, eskaera-orriarekin batera, indarrean dagoen Drogen Menpekotasunen aurkako Toki-planaren ale bat bidali beharko dute.

*28. artikulua.–* Zenbatekoa eta ordainketa egiteko modua

1.– Aipatutako talde teknikoei dagokienez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak langile-gastuen %75a finantzatuko du, taldeko kide bakoitzeko eta kasuan kasuko maila profesionalaren arabera. Hala ere, portzentaje horren oinarriak ez du Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak urtero finkaturiko zenbatekoak baino handiago izan behar. Zenbateko horiek, honako Dekretuko 33.2. artikuluan aipatzen diren eskaera-orriak aurkezteko epeekin batera argitaratuko dira, aurtengo urterako Hirugarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren kaltetan joan gabe.

2.– Ordainketa zatika egingo da: hitzarmena izenpetzerakoan, lehenengo %50a, eta beste %50a, dagokion toki-erakundean fede publikoa duen lagunak emandako egiaztagiria aurkezten denean; egiaztagiri horretan honako zehaztasun hauek eman behar dira: talde teknikoak osatzen dituzten lagunen kopurua eta maila profesionala, eta talde tekniko horiek kontratatzeagatik egindako gastua. Egiaztagiri hori, dirulagun-

3.– Los equipos técnicos de prevención comunitaria de las drogodependencias deberán estar compuestos por el siguiente personal:

a) En entidades locales con población comprendida entre 10.000 y 20.000 habitantes: una persona con titulación superior o media a jornada completa.

b) En entidades locales con población comprendida entre 20.001 y 50.000 habitantes: una persona con titulación superior o media a jornada completa y una persona auxiliar administrativo a media jornada.

c) En entidades locales con población superior a 50.000 habitantes: dos personas con titulación superior o media y una persona auxiliar administrativo, todas ellas a jornada completa.

*Artículo 27.–* Datos que deberán contener las solicitudes.

1.– Las solicitudes de ayudas para la creación o mantenimiento de equipos técnicos contendrán, como mínimo, los siguientes datos:

a) Descripción de los equipos técnicos en la que se hará constar objetivos, programas previstos y modo de prestación del servicio.

b) Número de personas que integrarán los equipos técnicos, desglosado por titulaciones y especificando su coste económico total en el año correspondiente, cumplimentando la ficha de gasto previsto para cada uno de los miembros del equipo.

c) Medios materiales a utilizar por el servicio.

2.– Las entidades que se acojan a esta modalidad de ayudas deberán remitir junto a la instancia de solicitud un ejemplar del Plan Local de Drogodependencias vigente.

*Artículo 28.–* Cuantía y forma de pago.

1.– El Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social podrá financiar hasta un 75 % del coste de personal de los citados equipos técnicos, por cada uno de sus componentes y de acuerdo con su categoría profesional. En ningún caso la base sobre la que se aplicará el citado porcentaje será superior a las cuantías que el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social fije anualmente, que se publicarán conjuntamente con los plazos de presentación de solicitudes a que hace referencia el artículo 33.2 del presente Decreto, sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria Tercera para el presente año.

2.– El pago será fraccionado, abonándose el primer 50% a la firma del Convenio y el restante 50%, previa certificación de la persona dotada de fe pública en la entidad local correspondiente, donde conste el número y la categoría profesional de las personas que han integrado los equipos técnicos, así como el coste económico total derivado de la contratación de dichos equipos técnicos. Esta certificación deberá ser presentada en el

tza dagokion ekitaldia amaitu ondorengo bi hilabeteko epean aurkeztu behar da.

2. ATALA. DROGEN MENPEKOTASUNEN KOMUNITATE-PREBENTZIOARI BURUZKO PROGRAMAK LANTZEKO LAGUNTZAK

*29. artikulua.*– Erakunde onuradunak

1.– Berek nahiz erakunde espezializatuen laguntzaz, beren lurralde-eremuan komunitate-prebentzioari buruzko programak kudeatzen dituzten toki-erakundeak balia daitezke komunitate-prebentzioari buruzko programak lantzeko dirulaguntzez. Programa horien xedea, gizarte-zerbitzuen jardueraren arloan, komunitatearen gaitasun prebentiboa bultzatzea izango da, drogen menpekotasunak saihestera zuzendutako jarduerak burutu beharko dituztelarik.

*30. artikulua.*– Eskabideetan adierazi behar diren datuak eta dokumentazio osagarria

Programa bakoitzeko eskabide bana bete behar da, eta bertan honako datu hauek adierazi behar dira gutxienez:

– Programaren izena. Drogen Menpekotasunen aurkako Toki-Planean jasota egon behar du programak.
– Programaren helburuak.
– Garapen aldiak eta aldi horietako bakoitzean egingo diren jardunak.
– Zein gizataldeeri zuzentzen zaion programa.
– Onuradun izan daitezkeen kideen kopurua.
– Zerbitzu publikoekin dagoen koordinazioa.
– Erakunde espezializatuekin dagoen lankidetza.
– Diru-sarreren eta gastuen aurrekontua.
– Giza baliabideak eta baliabide materialak.

*31. artikulua.*– Dirulaguntzak emateko eta zenbatekoak erabakitzeko irizpideak

1.– Gehienez eman daitezkeen puntuen arabera, honako hauek dira laguntzak emateko eta horien zenbatekoa finkatzeko irizpideak:

a) Aurkeztutako programako jarduera zenbateraino egokitzen zaion dagokion sektorean ikusitako eskariari, Drogen Menpekotasunen Toki-Planari eta Eusko Jaurlaritzak arlo horretan egindako plangintza orokorrari, eta, bereziki, Drogen menpekoen alorreko Prebentzioa, Laguntza eta Bergizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 15/1998 Legeak prebentzio-arloan udalerriei dagokienez emandako manuak zenbateraino betetzen dituen: gehienez 30 puntu.

b) Programak zenbat lagun hartzen dituen: gehienez 20 puntu.

c) Programak hartzen dituen taldeetan eta prebentzio-jarduera egin behar den eskualdean zenbaterainoko arriskua dagoen: gehienez 20 puntu.

plazo de dos meses desde la finalización del ejercicio al que corresponda la subvención.

SECCIÓN 2ª.– AYUDAS PARA EL DESARROLLO DE PROGRAMAS DE PREVENCIÓN COMUNITARIA DE LAS DROGODEPENDENCIAS.

*Artículo 29.*– Entidades beneficiarias.

Podrán acogerse a las ayudas para el desarrollo de programas de prevención comunitaria de las drogodependencias aquellas entidades locales que gestionen, directamente o en colaboración con entidades especializadas, programas de prevención comunitaria de las drogodependencias en su ámbito territorial, entendiéndose por tales aquéllos que, en el área de actuación de los servicios sociales, tienen por objeto potenciar la capacidad preventiva de la comunidad, desarrollando actividades destinadas a evitar la aparición del fenómeno de las drogodependencias.

*Artículo 30.*– Datos que deberán contener las solicitudes y documentación complementaria.

Por cada programa deberá cumplimentarse una solicitud que contendrá, como mínimo, los siguientes datos:

– Denominación del programa, que deberá estar incluido en el Plan Local de Drogodependencias.
– Objetivos del mismo.
– Fases de desarrollo y actividades en cada una de ellas.
– Colectivos a los que se dirige el programa.
– Número previsto de personas beneficiadas.
– Coordinación con servicios públicos.
– Colaboración con instituciones especializadas.
– Presupuesto de ingresos y gastos.
– Recursos humanos y materiales.

*Artículo 31.*– Criterios de adjudicación y su ponderación.

1.– Los criterios para la concesión y fijación de la cuantía de la ayuda serán los que a continuación se señalan, de acuerdo con el siguiente baremo de puntuaciones máximas:

a) La adecuación de la actividad objeto del programa presentado a la demanda detectada en el sector correspondiente, al Plan Local de Drogodependencias, y a la planificación general del Gobierno Vasco sobre la materia, y especialmente con el cumplimiento de los mandatos que en materia de prevención establece, en relación con los Municipios, la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de Drogodependencias hasta 30 puntos.

b) El número de personas receptoras del programa hasta 20 puntos.

c) El nivel de riesgo de los colectivos receptores y del área geográfica en la que se desarrolle la actividad preventiva hasta 20 puntos.

d) Prebentzio-jarduera beste udal-arlo batzuekin, beste erakunde batzuekin nahiz herritarren ekimenarekin bat eginik burutzea: gehienez 15 puntu.

e) Erakunde eskatzailearen partaidetza ekonomikoa: gehienez 10 puntu.

f) Lehendik subentzionatutako programak bete eta arrazoitzerakoan erakunde horiek erakutsi duten zehaztasuna: gehienez 5 puntu.

2.– Administrazioak, oro har eta erakunde onuradunekin bat etorriz, diruz lagun daitekeen proiektua burutzeko bidezkotzat jotzen diren gainerako alderdi osagarriak finka ditzake. Alderdi osagarriok finkatzerakoan, erabateko errespetua izango zaio dirulaguntza honen xedearen definizio zehatzari, Dekretu honetako 2.6. artikuluan ezarrita dagoen bezala.

*32. artikulua.*– Zenbatekoa eta ordainketa egiteko modua

1.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak aurrekontuaren %75eraino finantzatu ahal izango du onartutako programa.

2.– Ordainketa zatika egingo da: %50a, emakida emateko unean, eta gainontzeko %50a, toki erakunde bakoitzean fede publikoa duen lagunak egindako egiaztagiriaren bidez gastuak zuritu ondoren. Jarduna amaitu eta handik bi hilabeteko epean aurkeztu behar da egiaztagiri hori.

VIII. KAPITULUA
GUZTIENTZAKO XEDAPENAK

*33. artikulua.*– Eskabideak non eta zein epetan aurkeztu behar diren

1.– Eskabideak, araututako eske-idazkian eta kasu bakoitzari dagozkion agiriekin batera, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko lurralde ordezkaritzetan edo Gizarte Ongizate Zuzendaritzan, aurkeztu beharko dira.

Edonola ere, aplikagarri izango da azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 38.4. artikuluan aurreikusitakoa.

2.– Urtero, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren Agindu batez, Dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzetarako eskabideak aurkezteko epea ezarriko du. Epe hori, gutxienez, hilabetekoa izango da Agindua argitaratzen denetik. Eta hori guztia, aurtengo urterako Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoaren kaltetan joan gabe.

3.– Pertsona, entitate edo erakunde onuradunek eskabidea aurkezten dutenean egiaztatu behar dute betebeharrak betetzen dituztela.

d) La ejecución de la actividad en coordinación con otras áreas municipales, con otras instituciones o con la iniciativa social hasta 15 puntos.

e) La participación económica de la entidad solicitante hasta 10 puntos.

f) Exactitud en el cumplimiento y justificación de los programas subvencionados con anterioridad a estas entidades hasta 5 puntos.

2.– La Administración, con carácter general y de acuerdo con las entidades beneficiarias, podrá fijar aquellos elementos adicionales que se consideren oportunos a fin de ejecutar el programa susceptible de ser subvencionado. La fijación de dichos elementos adicionales se realizará con pleno respeto a la definición precisa del objeto de esta ayuda, establecido en el artículo 2.6 de este Decreto.

*Artículo 32.*– Cuantía y forma de pago.

1.– El Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social podrá financiar hasta un 75% del presupuesto que resulte aprobado.

2.– El pago será fraccionado, abonándose el 50% en el momento de la concesión y el 50% restante, previa justificación de los gastos mediante la certificación de la persona dotada de fe pública en la entidad local correspondiente, o documentos acreditativos de los mismos, en el plazo de dos meses a partir de la finalización de la actividad.

CAPÍTULO VIII
DISPOSICIONES COMUNES

*Artículo 33.*– Presentación de las solicitudes: forma y plazo.

1.– Las solicitudes se presentarán, mediante instancia normalizada que podrá recogerse y entregarse, con la documentación que en cada caso corresponda, en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, o bien en la Dirección de Bienestar Social.

En todo caso, será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Mediante Orden del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social se publicará anualmente el plazo de presentación de solicitudes de las ayudas previstas en este Decreto, que como mínimo será de un mes desde la entrada en vigor de la citada Orden, todo ello sin perjuicio de lo previsto en la Disposición Transitoria Primera para el presente año.

3.– El cumplimiento de los requisitos de las personas, entidades o instituciones beneficiarias deberá acreditarse en el momento de la presentación de la solicitud.

*34. artikulua.–* Eskabideetako akatsak zuzentzea

Eskabideak oso-osorik betetzen ez badira, edo laguntzei buruzko kapitulu bakoitzean ezarritako agiriekin batera aurkezten ez badira, hamar eguneko epea emango zaio dagokionari, akatsa konpon dezan edo derrigor aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan; orobat, adieraziko zaio ezen, agindutakoa betetzen ez badu, eskaera ukatutzat joko dela. Hala ere, Administrazioa behartuta dago eskabide horri buruzko erabakia berariaz ematera, eta hala jakinaraztera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1. eta 42.1. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

*35. artikulua.–* Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

1.– Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste zernahi dirulaguntzarekin. Eskabidearekin batera zinpeko adierazpen bat bidali behar da, helburu bera iristeko beste finantzazio-iturririk badagoenentz, zenbatekoa eta, halakorik egonez gero, erabakitzeke dauden laguntza-eskabideak azalduz. Dirulaguntza guztien bitartez guztira lortutako kopurua jarduerarentzat ezarritako aurrekontua baino handiago bada, eman beharreko dirulaguntzari aurrekontua gainditzen duen soberakina gutxituko zaio.

2.– Dekretu honetako VII. Kapituluan arautako dirulaguntzen kasuan, aurreko paragrafoan aipatzen den zinpeko adierazpenaren ordez, erakunde horretan fede publikoa duen pertsonaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

*36. artikulua.–* Pertsona, erakunde eta entitate onuradunen obligazioak

1.– Euskal Herriko Herriogasuntzaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratuko 50.2. artikuluan ezarritako kasuan kasuko eginbeharrez gainera, honako hauek ere bete behar dituzte pertsona, erakunde eta entitate onuradunek:

a) Diruz lagundutako jarduna edo programa, eta egindako gastuaren ordain-agiriak bidali beharko dituzte Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarte Ongizate Zuzendaritzara. Eginbehar honetatik salbuetsirik daude III. Kapituluan aurreikusitako dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunak.

b) Subentzionatutako jardueren helburua nahiz izaera nabarmen aldatzen duen zernahi gorabeheraren berri ematera beharturik daude, bai eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jarduera horiek egiaztatzen, ikuskatzen, jarraitzen eta begiratzen laguntzera ere.

c) Subentzionatutako jarduerak zabaldu, hedatu nahiz, hala behar izanez gero, argitaratu behar direnean,

*Artículo 34.–* Subsanación de los defectos de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación que se relaciona en cada capítulo de ayudas, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 35.–* Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

1.– La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda. Deberá presentarse, junto a la solicitud, declaración jurada de la existencia o no de otras fuentes de financiación para el mismo fin, cuantía de la misma y, en su caso, de las solicitudes de ayuda pendientes de resolución. En el caso de que el importe total de la suma de las diferentes ayudas y subvenciones obtenidas sea superior al presupuesto que resulte aprobado en la actividad, la ayuda a conceder se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso.

2.– En las ayudas reguladas en el Capítulo VII de este Decreto, la declaración jurada a que hace referencia el párrafo anterior se sustituirá por el certificado de la persona dotada de fe pública en la correspondiente institución.

*Artículo 36.–* Obligaciones de las personas, instituciones y entidades beneficiarias.

1.– Sin perjuicio de las obligaciones señaladas en el artículo 50.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, que en su caso resulten aplicables, las personas, instituciones y entidades beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a :

a) Remitir a la Dirección de Bienestar Social del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social una memoria que valore la actividad o programa subvencionado que deberá presentarse acompañando a los justificantes del gasto realizado. Se exceptúa de esta obligación a las personas o entidades beneficiarias de las ayudas contempladas en el Capítulo III.

b) Comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de las actividades subvencionadas, así como a colaborar con el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social en los procedimientos de comprobación, inspección, seguimiento y control de dichas actividades.

c) Hacer constar expresamente el patrocinio del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren babesa jaso izana adierazi beharko da berariaz.

d) Dirulaguntzen norakoa eta erabilera bermatu beharko dute zerrenda bidezko bermeen nahiz ondasunbermeen bitartez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko Lehenengo Tituluan aurreikusitakoaren arabera. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen berme eta diru-ateratzeen araubide orokorra ezarri zen eta, orobat, dirulaguntza horien kudeaketan esku hartzen duten Erakunde kolaboratzaileen betekizun, erregimen eta eginbeharrak.

2.– Gainera, dekretu honetako III. kapituluan ezarritako jardunei dagokienez, subentzionatutako lanak aurkezten direnetik hasi eta urtebeteko epean argitaratzeko nahiz zabaltzeko ahalmena hartu du beretzat Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, zeinak egileen jabetza intelektualaren eskubidea errespetatuko baitu, eta apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuko 4. artikuluan ezarritakoa beteko (Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratua onartu zen dekretu horren bidez).

*37. artikulua-* Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea

Beti ere dirulaguntzaren xedea bete dela baietsirik, dirulaguntza ematean kontuan hartu ziren baldintzetan aldaketarik izan bada, edo orobat Herri Administrazio honek edo beste batek, edo erakunde publiko zein pribaturen batek, emandako dirulaguntza konkurrenterik jasotzen bada, dirulaguntza emateko Ebazpena aldatzea gerta daiteke. Hala, bada, Gizarte Ongizate Zuzendaritzak kasuan kasuko Likidazio Ebazpena egingo du; ebazpen horretan, emandako dirulaguntzen zenbatekoa egokituko du, ematerakoan ezarritako irizpide eta mugak aplikaturik, eta pertsona eta erakunde onuradunak behartuta daude jasotako soberakina itzultzera.

*38. artikulua.–* Kudeaketa, erabakia, errekurtsoak eta publizitatea

1.– Dekretu honetan ezarritako laguntzak kudeatzeko organo eskuduna Gizarte Ongizate Zuzendaritza izango da.

2.– II., III., IV., V. eta VI. kapituluetan, eta VII. kapituluko 2. atalean ezarritako laguntzak lehiaketa bidez erabakiko dira. Gizarte Ongizate zuzendariak kide anitzeko organo bat izendatuko du kapitulu bakoitzeko laguntzak erabakitzeko, eta organo horrek egingo du erabaki-proposamena.

Honako lagun hauek osatuko dute organo hori:

– Presidente: Gizarte Ongizate zuzendaria
– Kideak: Gizarte Ongizate Zuzendaritzako hiru teknikari. Horietako batek idazkari-lanak egingo ditu.

Gobierno Vasco en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas.

d) Garantizar el destino y aplicación de las mismas mediante garantías relacionales o reales, conforme a lo previsto en el Título Primero del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades colaboradoras que participan en su gestión.

2.– Además, en las ayudas contempladas en el Capítulo III del presente Decreto, el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, respetando el derecho de propiedad intelectual de sus autoras y autores y de conformidad con lo establecido en el artículo 4 del Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril, se reserva la facultad de publicar o divulgar los trabajos subvencionados durante un plazo de un año a partir de la presentación de los mismos.

*Artículo 37.–* Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por ésta u otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de la subvención. A estos efectos, por la Dirección de Bienestar Social se dictará la oportuna Resolución de Liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas, aplicándose los criterios y límites establecidos para su otorgamiento, quedando obligadas las personas, instituciones y entidades beneficiarias a la devolución de los importes percibidos en exceso.

*Artículo 38.–* Gestión, Resolución, Recursos y Procedimiento de publicidad.

1.– El órgano competente para la gestión de las ayudas reguladas en el presente Decreto será la Dirección de Bienestar Social.

2.– Las ayudas previstas en los capítulos II, III, IV, V, VI y VII sección 2ª se resolverán por el procedimiento de concurso. Para cada uno de estos capítulos habrá un órgano colegiado, designado por el Director de Bienestar Social, que formulará la propuesta de resolución.

La composición de estos órganos colegiados será la siguiente:

– Presidente: Director de Bienestar Social.
– Vocales: Tres personas con nivel técnico de la Dirección de Bienestar Social, una de las cuales actuará como secretario o secretaria.

3.– VII. kapituluko 1. atalean ezarritako laguntzetarako aurkezten diren proiektuak Gizarte Ongizate Zuzendaritzak aztertu eta ebaluatuko ditu.

4.– Gizarte Ongizate zuzendariak banan-banan emandako erabakiaz emango edo ukatuko dira dekretu honetako kapituluetan ezarritako laguntzak.

Dekretu honetako V. eta VI. kapituluetan eta VII. kapituluko 1. atalean ezarritako laguntzen kasuan, Artikulu honetako 8. paragrafoan aipatzen den hitzarmena izenpetu baino lehenagokoa izan beharko da emateko Ebazpena. Ebazpenarekin batera, izenpetuko den hitzarmenaren kopia ere bidaliko da.

5.– Laguntzak emateko ebazpenetan onuradunaren eginbeharrak -dekretu honetako 36. artikuluan ezarritakoak- adierazi beharko dira, eta berariaz esan beharko da ezen Ekonomia Kontroleko Bulegoak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, laguntzen erabilera fiskalizatzeko eska diezazkion argibide guztiak emateko obligazioa daukala.

6.– Publizitate-printzipioa betetzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Gizarte Ongizate zuzendariaren Ebazpen baten bidez, xedapen honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun gertatu diren erakunde eta pertsonen zerrenda, bakoitzak jasoko duen zenbatekoa adierazirik; emandako dirulaguntzan aldaketarik izan bada, hala adieraziko da zerrendan. Nolanahi ere, erabakia berariaz eta banan-banan ere jakinaraziko da.

7.– Erabaki horiek ez dute administrazio-bidea amaitzen, eta beroien kontra interesatuek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Gizarte Gaietarako sailburuordeari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.– Dekretu honetako V. kapituluan, VI. kapituluan eta VII. kapituluko 1. atalean aurreikusitako laguntzak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta erakunde nahiz entitate onuradunen artean izenpetzen diren hitzarmenen bitartez gauzatuko dira. Gizarte Ongizate zuzendariak izenpetuko ditu hitzarmen horiek, eta honako alderdi hauek arautuko dituzte funtsean:

a) Hitzarmenaren helburua eta indarraldia.

b) Programak betetzeko epea.

c) Programak hasiz geroztik egon diren aldaketak.

d) Finantzazioa.

e) Programen segimendua, kontrola eta ikuskaritza.

f) Memoria aurkeztea.

3.– Los proyectos presentados a la línea de ayudas prevista en el Capítulo VII sección 1ª serán analizados y evaluados por la Dirección de Bienestar Social.

4.– La concesión y denegación de las ayudas previstas en los Capítulos del presente Decreto se efectuará mediante Resolución expresa e individualizada del Director de Bienestar Social.

En los Capítulos V, VI y Sección 1ª del Capítulo VII la Resolución de concesión tendrá carácter previo a la firma del Convenio a que se refiere el párrafo 8 del presente artículo. Junto a dicha Resolución se adjuntará la copia del convenio a suscribir.

5.– Las Resoluciones de concesión de las ayudas indicarán las obligaciones del beneficiario previstas en el artículo 36 de este Decreto, y específicamente la obligación de facilitar cuanta información le sea requerida por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

6.– A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de las Resoluciones de concesión, mediante Resolución del Director de Bienestar Social se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de las Instituciones, personas y/o Entidades que hayan resultado beneficiarias de las subvenciones concedidas al amparo de la presente disposición, con expresión de las cuantías percibidas, así como la de aquellas respecto de las que se haya procedido a modificar la subvención concedida.

7.– Dichas Resoluciones no agotan la vía administrativa y contra las mismas las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Asuntos Sociales conforme a lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

8.– La concesión de las ayudas contempladas en los Capítulos V, VI y Sección 1ª del Capítulo VII del presente Decreto se instrumentará mediante la formalización de Convenios entre el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social y las entidades e instituciones beneficiarias. Dichos Convenios serán suscritos por el Director de Bienestar Social y regularán, con carácter básico, los siguientes aspectos:

a) Objeto y vigencia del Convenio.

b) Plazo de realización de los programas.

c) Modificaciones sobrevenidas en la ejecución de los programas.

d) Financiación.

e) Seguimiento, control e inspección de la realización de los programas.

f) Presentación de la memoria.

g) Publizitateari buruzko betebeharrak.

h) Laguntzaren zenbatekoa aldatzea.

i) Ezarritako baldintzak ez betetzea eta dirua itzultzeko obligazioa.

j) Hitzarmenean ezarritako baldintza guztiak.

*39. artikulua.–* Isiltasunez ukatzea

Aurtengo ekitaldiko deialdirako Dekretu hau indarrean jartzen denetik, edo aurrerantzean 33.2. artikuluan aurreikusitako deialdi urterokoa egiteko Agindua indarrean jartzen denetik, sei hilabeteko epean berariazko erabakirik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak ukatu egin direla joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Administrazioak berariaz erabakitzeko duen obligazioaren kaltetan gabe.

*40. artikulua.–* Diru-baliabideak eta laguntzetarako mugak

1.– Dekretu honen helburua betetzeko diren diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko urtean urteko Aurrekontu Orokorretan propio ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira. Aurrekontu-aldaketak onartzen baldin badira indarrean dagoen legediaren arabera, aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan emateko diren laguntza guztien bolumenak ez du gaindituko aipatutako kontsignazioa edo bere eguneratzetik sortutakoa.

Urteroko deialdia egiteko Aginduek zehaztuko dute bai Dekretu honetako xedea betetzera bideratuko den zenbateko osoa, bai haren xehekapena, 2. artikuluan dirulaguntzen gai gisa aurreikusitako jardueren arabera.

2.– Dekretu honetako kapituluetan ezarritako irizpideak aplikatu eta gero baloraziorik handiena lortu duten onuradunei emango zaizkie II., III., IV., V. eta VI. kapituluetan eta VII. kapituluko 2. atalean ezarritako laguntzak

3.– VII. kapituluko 1. atalean ezarritako laguntzetarako diru baliabideen zenbateko osoa hainbanatu egingo da toki-erakunde onuradunen artean. Hainbanaketa egiteko, toki-erakunde onuradunen biztanleriaren ondoan komunitate-prebentzioko talde teknikoak zenbat lagunek osatzen dituzten hartuko da kontuan, dekretu honetako 26.3 eta 28.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

*41. artikulua.–* Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzakoak, eta gizarte zerbitzuei eta dirulaguntza publikoei dagozkienak

g) Requisitos relativos a publicidad.

h) Modificación de la cuantía de la ayuda.

i) Incumplimiento de las condiciones establecidas y obligación de reintegro.

j) Todas aquellas condiciones que resulten de los términos del Convenio.

*Artículo 39.–* Desestimación por silencio.

Transcurridos seis meses desde la entrada en vigor del presente Decreto para la convocatoria del presente ejercicio, o de la respectiva Orden de convocatoria anual prevista en su artículo 33.2, sin que se haya dictado y notificado resolución expresa, las solicitudes se entenderán desestimadas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

*Artículo 40.–* Recursos económicos y límite en la concesión.

1.– Los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto del presente Decreto procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio correspondiente. El volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

Las sucesivas órdenes de convocatoria anuales determinarán tanto el importe total destinado al cumplimiento del objeto de este Decreto, como su desglose en relación con las actividades subvencionables previstas en su artículo 2.

2.– Las ayudas previstas en los capítulos II, III, IV, V, VI y VII sección 2ª sólo se concederán a los beneficiarios que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los criterios establecidos en los respectivos capítulos de este Decreto.

3.– El importe total de los recursos económicos destinados a las ayudas previstas en la Sección 1ª del Capítulo VII se prorratearán entre las Entidades Locales beneficiarias. Este prorrateo se efectuará atendiéndose al personal que componga los equipos técnicos de prevención comunitaria en relación con la población de derecho de las Entidades Locales beneficiarias, de conformidad con lo establecido en los artículos 26.3 y 28.1 de este Decreto.

*Artículo 41.–* Cumplimiento de obligaciones tributarias, de Seguridad Social y en materia de servicios sociales y subvenciones públicas.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak eman eta ordainduko badira, zerga-obligazioak, Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera, eta Gizarte Segurantzakoak beterik dituztela egiaztatu beharko dute eskatzaileek; orobat, gizarte zerbitzuen alorrean indarrean dauden legeak bete dituztela ere egiaztatu beharko dute.

2.– Halaber, dekretu honetan ezarritako laguntzak eman eta, hala balegokie, ordaindu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gizarte zerbitzuen arloan emandako laguntza nahiz dirulaguntza publikoak itzultzeko prozedura edo prozedura zehatzaile oro amaituta eduki behar dute pertsona, entitate eta erakunde onuradunek, prozedura horiek oraindik izapide-aldian badaude behintzat.

*42. artikulua.–* Baldintzak ez betetzea

Dirulaguntzaren onuraduna Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratuko 53.1. artikuluan aipatzen diren adibideetako batean badago, edo ebazpenean, hitzarmenean nahiz aplika daitekeen gainerako araudian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, Gizarte Ongizate zuzendariak erabaki bat emango du, eta, erabaki horren bitartez, falta ziren kopuruak jasotzeko eskubidea galdutzat joko du, eta jasotako dirulaguntza eta aplika daitezkeen legezko interesak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusira itzuli beharra daukatela deklaratuko, bidezko beste ekintza batzuen kaltetan gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Kopuru horiek herri-dirutzat hartuko dira legezko ondorioetarako, eta Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratuko 64. artikuluan ezarritakoa izango da erantzukizunen erregimena.

*43. artikulua.–* Dirua itzultzeko prozedura

Aurreko artikuluan adierazitako arauen bat bete gabe utziz gero, honako hau izango da laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Gizarte Ongizate zuzendariak dirua itzultzeko prozeduraren hasiera jakinaraziko dio dagokionari,eta prozedura hori hasteko zergatiak adieraziko dizkio. Hori horrela, 15 eguneko epea emango dio, hark bidezko deritzan arrazoibideak aurkez ditzan.

Dirua itzultzeko prozedura hasten bada, egin gabe leudekeen ordainketak etenda geratuko dira.

b) Arrazoibideak jasotzen direnean, edo epea arrazoibiderik egin gabe iraganez gero, aurreko paragrafoan adierazitako organoaren erabakiaz amaiera emango zaio dirua itzultzeko prozedurari.

Dirua itzultzeko prozedura erabakitzeko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

1.– La concesión y pago de las ayudas previstas en el presente Decreto queda condicionada a la acreditación por parte de los y las solicitantes del cumplimiento de sus obligaciones tributarias, de conformidad con lo dispuesto en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, y frente a la Seguridad Social, así como el cumplimiento de la legalidad vigente en materia de servicios sociales.

2.– Asimismo, la concesión y, en su caso, el pago a las personas, entidades e instituciones beneficiarias de las ayudas previstas en el presente Decreto quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 42.–* Incumplimientos.

En el supuesto de que el beneficiario de la subvención incurriese en los casos que señala el artículo 53.1 del Texto Refundido la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, incumpliese cualquiera de las condiciones establecidas en el presente Decreto y demás normas aplicables, así como en la Resolución de concesión, el Director de Bienestar Social, mediante la correspondiente Resolución, declarará la pérdida del derecho a la percepción de las cantidades pendientes y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, de conformidad con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes, siendo el régimen de responsabilidades el previsto en el artículo 64 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

*Artículo 43.–* Procedimiento de reintegro.

En los supuestos de incumplimiento previstos en el artículo anterior, el procedimiento para el reintegro de las ayudas percibidas será el siguiente:

a) El Director de Bienestar Social comunicará a la persona interesada la iniciación del procedimiento de reintegro y las causas que lo fundamentan, concediéndole un plazo de 15 días para que formule las alegaciones que estime oportunas.

La iniciación del procedimiento suspenderá, en su caso, los pagos que aún queden pendientes.

b) Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubiesen realizado, se pondrá fin al procedimiento por Resolución del Director de Bienestar Social.

El plazo máximo para resolver el procedimiento de reintegro será de seis meses.

Erabakiaren bidez arauen bat bete gabe utzi dela jotzen bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratuko da, bai eta, hala badagokio, erabakia jakinarazten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean dirua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko obligazioa ere. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

c) Dirua borondatezko epean itzultzen ez bada, horren guztiaren berri emango zaio Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ogasun eta Finantza Sailordetzari, aplika daitekeen lege-araudian xedatutakoaren arabera jardun dezan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

***Bakarra.***– Zuzeneko ekintza

Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeko 9.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Dekretu honetan araututako laguntzetarako egitarauak jotzen dira zuzeneko ekintzatzat.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehena.***– Eskabideak aurkezteko epea

Aurten, eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, salbu eta IV. kapituluan aurreikusitako dirulaguntzetarako (birziklapen eta prestakuntza ikastaroetara joateko), eskabide horiek aurkezteko hiru hilabeteko epea zabalduko baita, lehen aipatutako egun berean hasita, epe hori amaitu artean hasi edo burutzen diren jardunetarako.

***Bigarrena.***– Baliabide ekonomikoak

Dekretu honetako xedea 2000. urtean betetze aldera, guztira eta gehienez, sei ehun eta hogeita zortzi mila milioi ehun eta hogei mila pezetako kopurua bideratuko da (628.120.000 PTA – 3.775.077,23 Euro).

Aipatutako kopuru hori, 2. artikuluan dirulaguntzen gai gisa aurreikusitako jardueren arabera, honela xehekatuko da:

– Ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzea: 20.800.000 PTA (125.010,52 Euro)

– Azterketak eta ikerlanak egitea: 4.000.000 PTA (24.040,48 Euro)

– Prestakuntza eta birgaikuntza ikastaroetan partehartzea: 7.500.000 PTA (45.075,91 Euro)

– Lurraldez gaindiko egitarauak burutzen dituzten irabazte xederik gabeko erakunde pribatuen funtzionamendua: 47.320.000 PTA (284.398,93 Euro)

– Prebentzio eta gizarteratze egitarauak: 298.500.000 PTA (1.794.021,13 Euro)

– Drogen menpekotasunen komunitate-prebentziorako programa espezifikoak: 250.000.000 PTA (1.502.530,26 Euro)

Si la Resolución estimase la existencia de incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades que procedan en un plazo máximo de dos meses, desde la notificación de la Resolución. Este plazo se considerará como plazo de período voluntario.

c) La falta de reintegro en el período voluntario será puesta en conocimiento de la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco, a fin de que se proceda según lo dispuesto en la normativa legal aplicable.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.

***Única.***– Acción directa.

A los efectos previstos en el artículo 9.2 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, se declaran como acción directa los programas de ayudas regulados en el presente Decreto.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera.***– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para el presente año será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación del presente Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco, excepto para las solicitudes de las ayudas contempladas en el Capítulo IV (Asistencia a cursos de reciclaje y formación) para las que se abrirá un plazo de tres meses, a contar desde la misma fecha, destinado a las actividades que comiencen o se desarrollen hasta la finalización de dicho plazo.

***Segunda.***– Recursos económicos.

A los efectos del cumplimiento del objeto del presente Decreto en el año 2000, se destinará un total máximo de seiscientos veintiocho millones ciento veinte mil pesetas (628.120.000 PTA – 3.775.077,23 Euros).

El mencionado importe se desglosa de la siguiente manera en relación con las actividades subvencionables descritas en el artículo 2 de este Decreto:

– Organización de cursos, jornadas y seminarios: 20.800.000 PTA. (125.010,52 Euros).

– Realización de estudios e investigaciones: 4.000.000 PTA. (24.040,48 Euros).

– Asistencia a cursos de reciclaje y formación: 7.500.000 PTA. (45.075,91 Euros).

– Funcionamiento de las entidades privadas sin ánimo de lucro que desarrollen programas de ámbito supraterritorial: 47.320.000 PTA. (284.398,93 Euros).

– Programas de prevención e inserción social: 298.500.000 PTA. (1.794.021,13 Euros).

– Programas específicos de prevención comunitaria de las drogodependencias: 250.000.000 PTA. (1.502.530,26 Euros)

Hirugarrena.– VII. kapituluko 1. ataleko dirulaguntzen kopurua zehazteko gehienezko oinarriak

Dekretu honetako 28.1. artikuluan aipatzen diren gehienezko oinarriak, 2000. urterako, honakoak izango dira:

| | | |
|---|---|---|
| Goi mailako teknikaria: | 4.701.697 PTA | (28.257,77 Euro) |
| Erdi mailako teknikaria: | 4.258.782 PTA | (25.595,8 Euro) |
| Egun osoko laguntzailea: | 3.407.027 PTA | (20.476,64 Euro) |
| Egun erdiko laguntzailea: | 1.703.512 PTA | (10.238,31 Euro) |

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ordezko araubidea

Dekretu honetan administrazioaren jardunbidearen gainean aurreikusi gabeko alderdiei Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko zaie.

***Bigarrena.***– Arauen garapena

Dekretu hau garatzeko eta burutzeko beharrezkoak diren xedapenak hartzeko ahalmena ematen zaio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari.

***Hirugarrena.***– Errekurtsoak.

Dekretu honek administrazio-bidea agortzen duenez, interesdunek, dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dezakete Gobernu Kontseiluaren aurrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumenak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 10.1a). eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

***Laugarrena.***– Dekretua indarrean noiz jarriko den

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko ekainaren 13an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

***Tercera.***– Bases máximas para el cálculo de las subvenciones correspondientes al Capítulo VII Sección 1ª

Las bases máximas a que hace referencia el artículo 28.1 del presente Decreto para el año 2000 serán las siguientes:

| | | |
|---|---|---|
| *Técnico superior:* | *4.701.697 PTA* | *(28.257,77 Euros)* |
| *Técnico medio:* | *4.258.782 PTA* | *(25.595,8 Euros)* |
| *Auxiliar a jornada completa:* | *3.407.027 PTA* | *(20.476,64 Euros)* |
| *Auxiliar a media jornada:* | *1.703.512 PTA* | *(10.238,31 Euros)* |

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Régimen supletorio.

En lo no previsto en este Decreto en relación al procedimiento administrativo será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda.***– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

***Tercera.***– Recursos.

Contra la presente convocatoria, que pone fin a la vía administrativa, cabe interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 y de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco conforme a lo establecido en los artículos 10.1a) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

***Cuarta.***– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de junio de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.